**AMAIURKO ATERPETXEA (HERRIKO OSTATUKO SABAIA)**
**LAGATZEKO ETA KUDEATZEKO HITZARMENA**

EGINBIDEA Fotokopia hau orijinalarekin konpultsatu ondoren, haren kopia zehatza dela
DILIGENCIA Para hacer constar que compulsada esta fotocopia con el original resulta ser reproducción
Elizondo 2020 MAI. MAY. 25
Idazkaria Haren aginduz funtzionarioa
El/La Secretario/a P.O. El/La Funcionario/a

BATETIK.- **GARBIÑE ELIZEGI NARBARTE ANDREA**, **Baztango Udaleko alkate–udalburua**, egintza honetarako ahalmena duena aipatu Udalbatzak osoko bilkuran hartutako erabakiari jarraikiz;

ETA BERTZETIK.- **IXAAK REKALDE IRIGOIEN JAUNA**, 72675429Y NAN zenbakiduna, **Amaiurko herriko alkatea;**

## ESKU HARTU DUTE

**GARBIÑE ELIZEGI NARBARTE ANDREAK,** alkatea baita, **Baztango Udalaren** izenean eta hura ordezkatuz; eta **IXAAK REKALDE IRIGOIEN JAUNAK**, Amaiur herriaren izenean eta hura ordezkatuz.

BAZTAN BALLEKO UDALA
BAZTAN
Noble Valle y Universidad de Baztan

Aldeek Amaiurko aterpetxea lagatzeko eta kudeatzeko Hitzarmen hau sinatzeko duten legezko gaitasun nahikoa onartu diote elkarri, bakoitzak esku hartzeko bere izaera duela; eta horretarako

## AZALDU DUTE

**LEHENIK.-**
Baztango Udala Amaiurko Ostatua deituriko eraikinaren jabea dela. Aipatu eraikinean gizarte eta kultura zerbitzu batzuk daudela, erraterako: osasun kontsultategia, kultura elkartea, jolas aretoa, batzartegia bai eta Donejakue Bideko erromesendako aterpetxea, etxeko bigarren solairuan dagoena 2002 urtetik.

**BIGARRENIK.-**
Egun, eraikineko bigarren solairua erromesendako aterpetxetzat egokiturik dagoela eta 2003 urtetik Urdazubiko eta Baztango Donejakue Bidearen Lagunen Elkarteak kudeatzen duela. Erromesei ez ezik, Amaiurko herriak harekin harremana duten taldeei ere uzten die aipatu aterpetxea jardueraren bat egiteko.

**HIRUGARRENIK.-**
Hondar urteotan Amaiurko herriak hainbatetan eskatu diola Udalari aipatu aterpetxea laga diezaiola beharrezko berritze lanak egin ahal izateko. Izan ere, legeak berritze lan horiek beharrezkotzat jotzen ditu aipatu aterpetxea, erromes aterpetxea izateaz gain erabilera turistikorako aterpe ere bihurtu ahal izateko.

## XEDAPENAK

**Lehena.-** Kontratu honek baldintza batzuk ezartzea du xede, eta horiekin bat Baztango Udalak Amaiurko Ostatua deituriko eraikineko bigarren solairua Amaiur herriari laga dio Turismoko eta Donejakue Bideko aterpetxea egiteko.

**Bigarrena.-** Baztango Udalak Amaiurko Ostatua deituriko eraikineko bigarren solairua Amaiurko herriari laga dio 20 urtez Turismoko eta Donejakue Bideko aterpetxea egiteko. Lagapen hori gaiari aplikagarria zaion indarreango legerian aurreikusitakoaren babesean eta, bereziki, hauek aintzat harturik eginen da: 6/1990 Foru Legea, uztailaren 2koa, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa eta 280/1990 Foru Dekretua, urriaren 18koa, Nafarroako Toki Entitateen Ondasunen araudia onesten duena.

**Hirugarrena.-** Baztango Udalak eraikin osoaren edukitzaileari dagokion asegurua, erantzukizun zibilekoa, egitea bere gain hartuko du.

**Laugarrena.-** Amaiurko herriak honako konpromisoa hartu du: Ostatuaren eraikineko sabaian Turismoko eta Donejakue Bideko aterpetxea ezartzea, aipatu aterpetxea legeztatzeko beharrezko lanak egitea, indarrean dagoen legerla guztia betez, eta zehazki 140/2005 Foru Dekretuari, Nafarroako turismoko aterpetxeak antolatzeko erregelamendua onesten duenari lotuz eta aterpetxeak araudi horretara alderatuz.

**Borzgarrena.-** Amaiurko herriak Turismoko aterpetxearen xehetasun guztiak (kontsumo gastuak, garbiketa, mantentze lanak, kontabilitatea...) kudeatzeko konpromisoa hartu du. Berebat, Amaiurko herriak Erromesendako aterpetxea (kontsumo gastuak, garbiketa, mantentze lanak, erregistro-liburua, kontabilitatea... eta aterpetxearen erabiltzaile erromesei dagozkien alderdi guztiak) kudeatzeko konpromisoa hartu du, aterpetxe mota horien araudia betez eta erromesei gutxienez 8 leku eta horiendako legeak ezarritako prezioa bermatzen zaiela.

**Seigarrena.-** Amaiurko herriak konpromisoa hartzen du urtero Turismoko eta Donejakue Bideko aterpetxearen kontuak eta erregistro-liburuak Baztango Udalari emateko.

**Zazpigarrena.-** Hitzarmen hau ulertzeko orduan desadostasunik balego, Baztango Udalak hitzarmen hau interpretatzeko ahalmena beretako gorde du eta hura betetzeak sor ditzakeen zalantzak berak argituko ditu.

Eta horrela jasota geldi dadin, aldeek hitzarmen hau bi aletan eta ondorio bakar baterako sinatu dute, hasmentan adierazitako lekuan eta egunean.

EGINBIDEA: Fotokopia hau orijinalarekin konpultsatu ondoren, haren kopia zehatza dela adierazteko.

DILIGENCIA: Para hacer constar que compulsada esta fotocopia con el original resulta ser reproducción exacta del mismo.

Elizondo Baztan, 2020 MAI. MAY. 25

Idazkaria
Haren agindu funtzionarioa

El/La Secretario/a
P.O. El/La Funcionario/a

BAZTAN BALLEKO UDALA
BAZTAN
Ayuntamiento de Noble Valle y Universidad de Baztan

## CONVENIO DE CESIÓN Y GESTIÓN DEL ALBERGUE DE AMAIUR (DESVÁN DE LA POSADA)

DE UNA PARTE.- **DOÑA GARBIÑE ELIZEGI NARBARTE Alcaldesa-Presidenta del Exemo. Ayuntamiento del Valle de Baztan**, facultado para este acto en virtud de Acuerdo Plenario de la citada Corporación,

Y DE OTRA.- **DON IXAAK REKALDE IRIGOIEN** con D.N.I **72675429Y Alcalde Jurado de Amaiur,**

Idazkaria
Haren agindüz funtzionarioa
El/La Secretario/a
P.O. El/La Funcionario/a

### INTERVIENEN

**DOÑA GARBIÑE ELIZEGI NARBARTE** en su condición de Alcaldesa, en nombre y representación del Ayuntamiento del Valle de Baztan, y **DON IXAAK REKALDE IRIGOIEN** , en nombre y representación del pueblo de Amaiur,

Las partes tienen y se reconocen, con la personalidad en que respectivamente intervienen, capacidad legal suficiente para suscribir el presente Convenio de cesión y gestión del Albergue de Amaiur, y a tal efecto,

### EXPONEN

**PRIMERO.-**
El Ayuntamiento del Valle de Baztan es propietario del edifico denominado posada de Amaiur. En dicho edificio existen distintos servicios sociales y culturales, tales como el consultorio médico, sociedad cultural, sala de juegos, sala de batzarres, además de un Albergue de Peregrinos del Camino de Santiago en la segunda planta desde el año 2002.

**SEGUNDO.-**
Actualmente, el segundo piso del edificio está habilitado para Albergue de Peregrinos, siendo desde el año 2003 gestionado por la Asociación de Amigos del Camino de Santiago en Urdax-Baztan. Además de los peregrinos, el pueblo de Amaiur ofrece dicho Albergue a grupos vinculados a la localidad en el ejercicio de alguna actividad.

**TERCERO.-**
El pueblo de Amaiur ha venido en los últimos años solicitando al Ayuntamiento la cesión de dicho Albergue para realizar las reformas oportunas y legalmente exigidas para que dicho Albergue se convierta en un Albergue de uso turístico, además de Albergue de Peregrinos.

### ESTIPULACIONES

**Primera.-** El objeto del presente contrato es establecer las condiciones de acuerdo a las cuales el Ayuntamiento del Valle de Baztan cede el uso al pueblo de Amaiur de la segunda planta del edificio denominado Posada de Amaiur para el desarrollo de un Albergue turístico y del Camino de Santiago.

**Segunda.-** El Ayuntamiento del Valle de Baztan cede el uso al pueblo de Amaiur de la segunda planta del edificio denominado Posada de Amaiur para el desarrollo de un Albergue turístico y del Camino de Santiago por un plazo de 20 años. Esta cesión se realizará al amparo de lo previsto en la legislación aplicable a la materia y, de forma especial, de la Ley Foral 6/1990, de 2 de julio, de la Administración Local de Navarra y del Decreto Foral 280/1990, de 18 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento de Bienes de las Entidades Locales de Navarra.

**Tercera.-** El Ayuntamiento del Valle de Baztan se hará cargo del seguro de responsabilidad civil de continente de todo el edificio.

**Cuarta.-** El pueblo de Amaiur se compromete a desarrollar en el desván del edificio de la posada un Albergue turístico y del Camino de Santiago, realizando por el pueblo de Amaiur las obras necesarias para su legalización, cumpliendo toda la normativa vigente, y concretamente el Decreto 140/2005 de Ordenación de los Albergues de Navarra, equiparándolo a dicha normativa.

**Quinta.-** El pueblo de Amaiur se compromete a gestionar todos los aspectos del Albergue turístico (sus gastos de consumo, limpieza, mantenimiento, contabilidad,...), y también se compromete a gestionar todos los aspectos del Albergue de Peregrinos (sus gastos de consumo, limpieza, mantenimiento, libro de registro, contabilidad,...y todas aquellas cuestiones que atañen a los usuarios peregrinos del Albergue), cumpliendo la normativa de este tipo de albergues y garantizando para los peregrinos un mínimo de 8 plazas y el precio establecido legalmente para los éstos últimos.

**Sexta.-** El pueblo de Amaiur se compromete a entregar anualmente al Ayuntamiento del Valle de Baztan las cuentas y libros de registro del Albergue turístico y del Camino de Santiago.

**Séptima.-** En caso de discrepancias en la interpretación del presente convenio, será el Ayuntamiento del Valle de Baztan quien se reserva la facultad de interpretar el presente Convenio, y resolverá las dudas que ofrezca su cumplimiento.

Y para que conste firman las partes por duplicado ejemplar, y a un solo efecto, en el lugar y fecha al principio indicados.

EGINBIDEA: Fotokopia hau originalarekin konpultsatu ondoren, haren kopia zehatza dela adierazteko.

DILIGENCIA: Para hacer constar que [illegible] el original resulta ser reproducción exacta del mismo.

Elizondo Baztan, 2020 MAI. MAY. 25

Idazkaria
Haren aginduz funtzionarioa

El/La Secretario/a
P.O. El/La Funcionario/a